## UDAL INFORMAZIOA – 2018ko otsaila

## INFORMACIÓN MUNICIPAL Febrero/2018

Egun on aranztar, ondoko orri hauetan herriko hainbat konturen berri eman nahi dizuegu.

Hola, en esta ocasión venimos a ofrecerte información sobre diversos temas

### HERRIKO BESTETAKO KONTUAK

### BALANCE ECONÓMICO DE FIESTAS

Bestak aspaldi pasatu baziren ere, hementxe dituzue diru kontuak:

Aunque haya pasado bastante tiempo, este es el balance económico de las fiestas:

| **IRTEERAK** - GASTOS | | **SARRERAK** - INGRESOS | |
|---|---|---|---|
| **Argi-indarra /** Electricidad | **337,08€** | **Herri bazkaria /** Comida | **2.625,00€** |
| **Elektrotxaranga** | **850,00€** | **Postuak /** Puestos | **180,00€** |
| **Bertsolariak /** Bertsolaris | **900,00€** | **Sarrera / borondatea** Entradas / voluntad | **402,96€** |
| **Txamukos** | **1.250,00€** | **Publizitatea /** Publicidad | **2.028,00€** |
| **Fan & Go** | **1.500,00€** | | |
| **Bide Batez** | **1.573,00€** | | |
| **Trikidantz** | **2.300,00€** | | |
| **Trikidantz (afaria /** cena) | **177,10€** | | |
| **Bazkariak /** comidas | **693,00€** | | |
| **Puzgarriak /** hinchables | **968,00€** | | |
| **Piroteknia /** Pirotecnia | **229,32€** | | |
| **Herri Kirolak/** Deporte rural | **1.900,00€** | | |
| **Pilotariak /** Pelotaris | **1.600,00€** | | |
| **Esku programak /** Programas de mano | **1.137,40€** | | |
| **Herri bazkaria /** Comida | **2.994,50€** | | |
| **Taberna** | **72,94€** | | |
| **SGAE** | **491,73€** | | |
| **Xorroxin** | **77,00€** | | |
| **Gurutze Gorria /** Cruz Roja | **130,68€** | | |
| **Luntxa /** Lunch | **130,00€** | | |
| **IRTEERAK DENERA:** TOTAL GASTOS: | **19.311,75€** | **SARRERAK DENERA:** TOTAL INGRESOS: | **5.235,96€** |

ARANTZAKO UDALA

## UDAL PLAN OROKORRA

**Urteak ez dira ez alferrik pasatzen eta Arantzako arau subsidiarioak zaharkituta gelditu zaizkigu. Hau aldatu eta ondoko 20 urtetan nolako Arantza nahi dugun finkatzeko plana egitea beharrezkoa dela ikusten dugu. Horregatik, 2017ko ekainaren 17an Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuko Kontseilariak eta Arantzako alkateak UDALEKO PLAN OROKORRA abiatzeko hitzarmena sinatu genuen. Udal Plan Orokorra egiteko lanak esleitu dugu eta aurkeztu direnen artean udalarentzat lan egiten duen arkitektoaren enpresa hobetsi dugu.**

**Hasi berri dugun urte honetan gai honi buruz solastu, eztabaidatu eta denon arten landu beharko dugu. Horretarako denon parte-hartzea beharrezkoa denez, agudo hau lantzeko bileretara deituko zaituztegu.**

## PLANEAMIENTO MUNICIPAL

Parece que los años no pasan en balde. Las normas subsidiarias, ya obsoletas, necesitan ser actualizadas y tenemos que decidir cómo queremos que sea Arantza en los próximos 20 años. Para ello, el 17 de junio 2017 la Consejera de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra y la alcaldía de Arantza firmamos el convenio para la puesta en marcha del nuevo plan municipal de urbanismo.

Se han ofertado los trabajos y adjudicado a la empresa de arquitectos que trabaja para el Ayuntamiento

Este año vamos a debatir mucho sobre este tema y para ello, teniendo en cuenta la necesaria participación vecinal, os adelantamos que próximamente empezaremos a convocar reuniones informativas.

## AUTOENTZAKO ABIADURA SEINALEAK

**Herriaren sarreran bi seinale ditugu, batean 60 paratzen du eta bertzean 40. Agudo horietan aldaketak eginen ditugu: 60koaren partez 40 paratuz eta 40koaren partez 30. Gainera, Oskoz-Eneatik goiti oin arrastoak margotuko ditugu oinezkoak bertan ibiltzeko. Neurri honekin oinezkoak eta haurrak, batez ere, eskolara edo herrira oinez nahiz bizikletaz lasai etortzea nahi dugu. Aldaketa hau herritar guzientzako onuragarria izanen delakoan gaude.**

## SEÑALES DE VELOCIDAD

Existen, a la entrada del pueblo, dos señales de tráfico que limitan la velocidad a 60 y 40 km/hora respectivamente. En breve, las vamos a cambiar por otras dos de 40 y 30. Además, a partir de Oskoz-Enea pintaremos huellas para uso peatonal. Con estas medidas pretendemos que los peatones en general, y los niños y niñas en particular puedan acercarse al pueblo o a las escuelas tranquilamente andando o en bicicleta.

## MENDIA

**Arantza mendiz inguraturiko herria dugu denok ederki aski dakigunez. Hau dela eta, kanpotik jende aunitz etortzen da mendiaz gozatzera. Guretzat, berriz, berriki arte lan egiteko lekua izan da mendia, eta azken urteotan hori aunitz aldatu da.**

## MONTES

Es bien sabido que Arantza es un pueblo rodeado de atractivos montes, que hacen disfrutar a montañeras, montañeros y amantes de la naturaleza en general. Para nosotros en cambio, es algo mas. Hasta hace poco era nuestro lugar de trabajo aunque estos últimos años este concepto ha cambiado bastante.

**Mendian basoa dugu eta horri esker ura ausarki. Zura eta su egurra egiteko aukera ere bai, eta horrekin batera abereak bertan bazkatzeko modua. Gozagarri ere bada bai ibiltzeko, bai ehizan aritzeko nahiz fruituak biltzeko. Baina zaindu ere egin behar dugu. Denona da eta denon eginbeharra da ahal den hobekien zaintzea, gero heldu direnek ere aukera bera izan dezaten. Gainera, medikuek diotenez aski ona omen da buru eta gorputzarentzako ibiltzea, ahal baldin bada oinez!**

En el monte tenemos bosque y gracias a él abundante agua, madera, leña y pasto para el ganado. Es agradable y placentero para pasear, cazar o recoger sus frutos... Pero también tenemos que cuidarlo. Es un bien heredado y por lo tanto debemos mantenerlo, cuidarlo lo mejor posible para que las siguientes generaciones también tengan el placer de disfrutarlo. Es su derecho y nuestra obligación. Además los médicos nos recetan caminar, a poder ser a pie, como remedio para males físicos y psíquicos

**Guzi honekin gure mendi ederretan auto, traktore, "todo terreno" edo bertze motordun ibilgailuekin ahalik eta gutien ibili behar dugula erran nahi dugu. Pistetan bai ibiltzen ahal gara, baina horietatik kanpo ez genuke ibili behar. Izan ere, mendia ahula da eta aunitz kostatzen zaio hondatu ondotik bere onera etortzea.**

En definitiva, lo que queremos decir es que en este tesoro de la naturaleza debemos rodar lo menos posible con toda serie de 4x4 y demás vehículos a motor; no los debiéramos utilizar fuera de las pistas ya que la naturaleza es frágil y cuesta mucho su recuperación.

## HERRIA ETA ZAKURRAK

**Nola aldatu diren garaiak, beharrik! Garai batean herrian ere aziendak baziren, eta honekin batera gorotza, kaka... Gaur egun, berriz, ez dugu horrelakorik, ezta baserrien atarietan ere, denok ahalik eta txukunen eduki nahi baititugu.**

**Herrian, ordea, ez dugu karrikak eta plaza gorotzik gabe edukitzea lortzen. Zeba? Ez al zaigu ba inporta kaka zanpatzea, haurrak jostetan ari direnean eskuak zakur kakaz zikindu eta ahora eramatea?**

**Herria zaintzea denon lana eta ardura dela uste dugu. Herrian barrena suelto dabiltzan zakurrak jabeek kontrolatu behar dituzte, edo kulero bana paratu, edo haren gibeletik joan kaka egiten duenean biltzeko!**

## CENTRO URBANO Y PERROS

¡Cómo han cambiado los tiempos, menos mal!, porque, antaño teníamos animales hasta en el pueblo y con ellos también su estiércol, excrementos... Hoy en día, no funcionamos así, cuidamos los entornos, limpiamos las entradas a los caseríos, no queremos tener residuos a la vista.

Pero en cambio, en el pueblo no conseguimos mantener sin excrementos ni la plaza ni las calles... Es que no nos importa que nuestros txikis lleven sus manos manchadas de kaka de perro a la boca?

No nos cansaremos de repetir, el cuidado del pueblo es obligación de toda la población. Los dueños son los responsables de los perros sueltos y deben tomar medidas para recoger sus excrementos o ponerles alguna braga para impedirlo!

## ESKOLA

**Azken udan ere eskolan hainbat lan egiteko aprobetxatu dugu. Berokuntza sisteman arazo bat izan zen eta galdara aldatu behar**

## ESCUELAS

El pasado verano aprovechamos para hacer obras en la escuela. Hubo una avería en el sistema de la calefacción y hubo que cambiar

**izan genuen, lehen bezala orain ere pelletarekin dabilena. Hau, hala ere, aunitzez hobea da eta luzarorako izatea espero dugu.**

**Ikasgeletan ere zenbait aldaketa ttiki egin ditugu, tximinia luzatu eta atariko paretan sare batzuk paratu haurrak teilatura ez igotzeko.**

la caldera. La nueva también funciona con pellet, es bastante mejor que la anterior y esperamos que también dure más que la anterior.

Se han hecho algunos pequeños cambios en las aulas, hemos alargado la chimenea y poner redes para que los alumn@s no suban al tejado

**MENDI LANAK**

**Bukatu berri den urte honetan lau baserri-auzoetan hainbat lan egin ditugu:**

- **Eguzkialdean:**
  - **Zerrakurak bildu eta Igantziko mugatik Astaloko pista zabaldu.**
- **Azkilarrean:**
  - **Gaisenberroko bordatik Senberroko bordarako bidea moldatu.**
- **Bordalarrean:**
  - **Garaiko bordatik Bulatxikirako bidean hormigoia bota.**
  - **Meakako bidean eta Sagargoxon kanadiar pasabideak egin.**
- **Aientsan:**
  - **Madalenbordatik Bordattikirako bidean hormigoia bota.**

**TRABAJOS FORESTALES**

A continuación detallamos los trabajos que se han hecho este pasado año en 4 barrios:

- Eguzkialdea: Recoger cierre y ensanchar la pista de Astalo desde la muga con Igantzi.
- Azkilarrea: Reparación del camino desde la borda de Gaisenberro hasta la borda de Senberro.
- Bordalarrea:
  - Echar hormigón en el camino de Bulatxiki a partir de la borda de Garaiko.
  - Pasos canadienses en el camino a Meaka y Sagargoxo.
- Aientsa: Echar hormigón en el camino de Madalenborda a Bordattiki.

**TRIKITIXA JAIALDIA**

**Bertze urte batez, aurtengoan martxoaren 10ean, trikitixa jaialdia izanen dugu. Ehun musikaritik goiti igoko dira oholtzara, herritarrak zein kanpokoak. Azpeitiko Sahatsa dantza taldeak ere emanaldia eskainiko du. Aurten herriko txistulariak omenduko ditugu.**

**FESTIVAL DE TRIKITIXA**

Tenemos el placer de anunciar que el próximo 10 de marzo tendremos festival de trikitixa con más de 100 músic@s participando. El grupo Sahatsa de Azpeitia ofrecerá un espectáculo de danzas y el homenaje será para el grupo local de Txistularis

**BELATEKO TUNELAK**

**Nafarroako Gobernuak, Europatik heldu den agindu bat betez, Belateko tuneletan segurtasuna hobetzeko obrak eginen dira. Horregatik, maiatzean hasi eta zazpi hilabetez itxita egonen dira. Itxi baino lehen errepide zaharrean egokitze lanak eginen dituztela ere erran digute.**

**TUNELES DE BELATE**

El Gobierno de Navarra, acatando una orden europea, va a realizar obras para mejorar la seguridad en los túneles de Belate. Comenzarán en mayo y permanecerán cerrados siete meses. Mientras el tráfico rodado se desviará por el puerto, pero antes se acondicionará la vieja carretera.

**ES VUESTRA LA PALABRA!**

En este espacio puedes escribir todo aquello que desees decirle al Ayuntamiento: sugerencias y proposiciones, críticas, mejoras...

Escribe y deposita el impreso en el buzón de la plaza que se ha instalado al efecto. Muchísimas gracias por vuestras aportaciones!!!

## IRADOKIZUNAK: